



“Minutu batez, segundo batez, enpeinatzea aski da”

XALBA RAMIREZ

DANI BLANCO

Belaunaldi bakoitzak bere lengoaian egiten du. Eta Joxemari Ostolaza ‘Xalbardin’-ek, Josu Landak eta Malores Etxeberriak euren hautatu dute: a capella errezitaldia. Bertso eta olerkiak hola, apaingarririk-apainkeriarik gabe, bateria sampler edo bideojockeyrik gabe, adinarentzako lifting gabe. Plaza erraza dute, aspaldiko lagunak, gehienak.

Dena da *Hautua*. Jose Luis Otamendiren olerkiarekin egin dute lehen aldarrikapena: euskara ez da beharrezkoa, eta hain zuzen derrigorrezkoa ez delako da libre aukeratzea zer hizkuntzatan mintzatu. “Eta hitzek beti naramate norbaitengana”. Komunitatea, nazioa, sortzen du euskarak; eta ez halaberrez, *halanahiez* baizik. Nahi dugulako elkartzeko gara, nahi dugulako gara. Utzi albo batera euskara-ikasilana-lortzea-errazagoa-da diskurtso txatxu hori. Eta elkartu gaitzen izan nahi dugun lakoak. Ezin enpeinatu euskararik gabe.

1975eko martxoaren 9ko *Zeruko Argia*-n Isabel delakoak salatuko ditu Azpillaga eta Lazkao Txiki bertsolariak, euren “matxismoa delako hori”. “Jaunak ezberdin egindakoa nola berdinduko genuen gizakiok”, aritu omen zen Lazkao Txiki emakumeen eskubideei buruz. Isabelek

zuzen erantzun “ez dugu gizonokin berdindu nahi, zuek ere libre ez zaretelako”. Bertsolariak herriaren esnatzaileak izan daitezke, baldin eta soilik baldin, ez badute ahazten –edo barregarri bihurtzen– herriarren erdia. Zapalkuntzaren adina dauka honen kontrako borrokak. Ezin enpeinatu feminismoak gabe.

Prima gaiztoak prima eijerra kolpatu. Ezin da gure historia hitz egin aipatu gabe, tamalez, tortura. Legez kanpokoa, zein legezkoa. *Euskaldunon Egunkaria*-ko lagunena, adibidez, gertukoa, ezaguna, injustua, mingarria. Minbiziaren eragilea. Ezin enpeinatu oinazetik gabe.

Enpeinuak ez gaitu libratu faxismotik ere. Ekhiñe Izagirrekin batera xuxurlatu du polifoniak aldarrikapena: “Francok hiltzerik/ lortu ez zuen/ gorria naiz/ (...) sorgina naiz/ (...) euskalduna naiz/ Hildako guztien izenean/ ez dira pasako!”. Ahotsak oihartzunekin nahastu dira, hildakoak berpiztu izan balira bezala: “Ez ahaztu”. Ezin enpeinatu memoriarik gabe.

“Zurrunbilotik zurrunbilora / (...) hoietzek ziren gure sexua / droga eta rokanrola”. Batailatxoak kontatzeko aukera nola alferrik galdu batailatxoak kontatzeko aukerak dituenak? ARGIAN igarotako pasadi-

**ARGIAK 100 URTE
‘ENPEINATZEA EZ BADA LIBRE’
ERREZITALDIA**

NOIZ: Maiatzak 24

NON: San Telmo Museoa, Donostia

zoak eta “pulamentua” ekarri dute bertara. Keriarik gabe eta tasun dezenterekin, ederra da oroimena ez denean oroi-mina, noizbehinka bada ere. Izan ere, ezin enpeinatu lagunik gabe.

Baina batailatxoak gorabehera, ez gauden atzera begirako ekitaldi batean “gure garaian” errekturto literarioa gastatu arte erabili izan dena. Bakoitzaren enpeinu bakoitzari esker, belaunaldi guztiok saiakera beraren aurrean izan gara (hirutan, lautan jarrai), eta elkar ezagutu dugu.

Belaunaldi bakoitzak izan dezake bere lengoia. Baina belaunaldi oro ezagutu daiteke hurrengo belaunaldian. Belaunaldiak ez baitira desagertzen: ederra dena bizirik mantentzen delako, gihar-bihotz berrietan. Enpeinatzea libre izateaz gain, eraginkorra ere badelako. Eta “hain gazteak” izan gabe, “oraindik ere mereziko duelako enpeinuetan hasteak”; asko –gehiegi– dugulako egiteko.

“Handitarako beharko dugu/ txikitik ere eragin / esne berrien, gorputz berrien / ume berrien emagin. / Enpeinatzea ez bada libre / alferrik dugu indarra / hau da txoriak gari tartean / goseak egon beharra.”

Saiatuko al gara? ●